

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

2144

56/2023 EBAZPENA, maiatzaren 2koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Donostiako Udalarekin sinatutako lankidetza-hitzarmena aldatzeko gehigarria, Donostiako udalerrian zuzkidura-bizitokiak sustatzekoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak sinatu du aipatutako lankidetza-hitzarmena aldatzeko gehigarri hori, eta behar bezalako publikotasuna emateko asmoz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Donostiako Udalarekin sinatutako lankidetza-hitzarmena aldatzeko gehigarria, Donostiako udalerrian zuzkidura-bizitokiak sustatzekoa. Gehigarri hori ebazpen honen eranskin gisa agertzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 2a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JON IÑAKI URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN MAIATZAREN 2KO 56/2023 EBAZPENARENA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAK (INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA) ETA DONOSTIAKO UDALAK ZUZKIDURA-BIZITOKIAK SUSTATZEKO SINATUTAKO LANKIDETZA-HITZARMENA ALDATZEKO GEHIGARRIA

Vitoria-Gasteizen, 2023ko otsailaren 23an,

BILDU DIRA:

Alde batetik, Ignacio María Arriola López jauna, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburua.

eta bestetik, Nekane Arzallus Iturriza, Donostiako Udaleko Hirigintza Sostengagarriko Zinegotzi Ordezkaria,

BERTARATU DIRA:

Lehenengoa, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko sailburu gisa eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren ordezkari gisa, Gobernu Kontseiluak 2023ko urtarrilaren 31n egindako bilkuran hartutako erabakiaren ondorioz egintza honetarako baimendua.

Eta, bigarrena, Donostiako Udaleko Hirigintza Sostengarrirako Zinegotzi ordezkari gisa, Udalaren ordezkari-lanetan, 2022ko otsailaren 15eko erabakiaren indarrez egintza honetarako baimendu

Bi alderdiek parte hartzen dute eranskin honetan interes publiko eta orokorren sustapenean, eta honako hau emateko eskumen nahikoa aitortzen diote elkarri, eta, horretarako, honako hau

AZALDU DUTE:

Lehenengoa.– 2020ko apirilaren 3an, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Donostiako Udalak, Donostiako udal-mugartean 180 zuzkidura-bizitoki berri inguru sustatzeko lankidetzatza-hitzarmena sinatu zuten.

Bigarrena.– Hitzarmenaren edukia dela eta, Udalak hartu zuen konpromisoa, funtsean, doan laga eta eskuz aldatzea Udalak dituen bi lursail, aldeztu aurretik egindako azterlanen arabera zuzkidura-bizitoki berriak hartzeko egokiak direnak, Morlans-Behera eta Loiolako Erriberak hirigintza-eremuetan direnak, hain zuzen ere.

Bestalde, EAEko Administrazioak, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren bitartez, hartzen zuen konpromisoa eta betebeharra zen aurreikusitako zuzkidura-bizitoki berriak sustatu eta egitea, bere gain hartuta horiek sustatzearen ondoriozko izaten diren gastuak.

Hirugarrena.– Morlans-Behera eremuan hasieran lagatzea aurreikusita zegoen lurzatian (9 G-1 partzela) proiektatutako zuzkidura-bizitoki berriak kokatzearen ondorioz zailtasun teknikoak antzeman direnez, mendiaren eta bidearen arteko estutasuna eta ahokadura direla eta, garai hartako Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak Udalari eskatzen dio eremu horretan beste partzela bat lagatzeko, G-4 11 lurzatia, alegia, G1 9 lurzatiaren ondoan dagoena.

Morlansen lurzati berri hori lagatzeak aukera emango du sustapen handiagoa garatzeko, baldintza tekniko, orografiko eta orientazio-baldintza hobeeekin, eta horrek hobekuntza nabarmena ekarriko luke aurreikusitako zuzkidura-bizitokiaren diseinuan, eta, ondorioz, baita etorkizuneko okupatzaileen eta erabiltzaileen bizi-kalitatean ere.

Laugarrena.— Hitzarmena Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 3/2003 Legearen 186. artikulua babesean sinatu zen, zeina toki-erakundeei supletorioki aplikatzen zaiena, zeinak adierazten baitu Estatuko Administrazio Orokorrek hitzarmenak egin ahal izango dituela beste administrazio publiko batzuekin edo zuzenbide publikoko edo zuzenbide pribatuko pertsona juridikoekin, eremu jakin batean haien arteko ondare- eta hirigintza-harremanak antolatzeke.

Bestalde, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak, VI. kapituluko 47. artikuluan eta hurrengoetan, lankidetzak-hitzarmenak arautzen ditu, baliozkotasun- eta eraginkortasun-baldintzak ezarriz eta horiek sinatzeko nahitaezko izapideak eta aldaketa-araubidea zehaztuz.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49. artikuluan xedatutakoaren arabera, 2020ko apirilaren 3an sinatutako hitzarmenaren hamargarren klausulak adierazten du hitzarmena aldatzeko alderdi sinatzaileen aho bateko akordioa beharko dela, hitzarmenaren dagokion gehigarria sinatuz.

Aurreko guztiagatik, bi alderdiek hitzarmena aldatzeko gehigarri hau sinatzea erabaki dute, klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

Lehenengoa.— Gehigarri honen xedea da 2020ko apirilaren 3an Donostiako Udalak eta orduko Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak udalerritan 180 zuzkidura-bizitoki inguru sustatzeko sinatutako lankidetzak-hitzarmenaren lehenengo klausula aldatzea. Aldaketa honetan datza: 2020ko apirilaren 3an lagatzen diren lurzatiei lurzati bat gehitzea, hau da, hasierako lagapenari AM.09 Morlans-Behera HEA birzatatzekeko proiektuaren 11 G-4 (g.000/AM.09.4) lurzatia gehitzea, udal-titulartasuneko, 9 G-1 lursailaren mugakide dena.

Eremua	Lursailak	Katastroko erref	Azalera (m ²) /	BT zk
AM09 Morlans Behera HEA	9-G-1 eta 11 G-4 partzelak (g.000/AM.09)	8295150 eta 8295146	1.352,00 eta 2.112,00	160/180
AM.05.1 Loiolako Erriberak EU	«AM.05.1» Loiolako Erriberak EU Birpartzelatzeko Proiektuko 51 zk.	8396359	1.456,25	100

Bigarrena.— Lankidetzak-hitzarmenaren baldintzak, dokumentu honek berariaz aldatzen ez dituenak, indarrean egongo dira erabat, eta ez dira aldatuko data honetan dauden moduan eta baldintzetan. Gehigarri honen edukia eta 2020ko apirilaren 3an sinatutako hitzarmena bat ez badatoz, gehigarri honetan aurreikusitakoa nagusituko da.

Hala, ados daudela adierazi eta hitzartutakoa behar bezala jasota garatzeko, dokumentu hau sinatu dute bi aldeek idazpuruan adierazitako tokian eta egunean.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

Donostiako Udaleko Hirigintza Sostengagarriko Zinegotzi ordezkaria,
NEKANE ARZALLUS ITURRIZA.